

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospiteleguneak mila monitorizazio neuro-fisiologiko baino gehiago egin du, ebakuntza arriskutsuetan kalte neuronalak saihesten dituen teknika

Anestesiaturako dagoen pazientearen nerbio-bulkaden gaineko kontrolak kalte funtzionalak prebenitzeko eta ebakuntza zehatzagoak egiteko aukera ematen du

Ostirala, 2017.eko otsailak 17

Nafarroako Ospiteleguneak ebakuntza barneko 1.100 monitorizazio neuro-fisiologiko egin du dagoeneko; pazienteen jarraipena egiteko teknika da, eta neuronak kaltetzeko arriskua dagoen ebakuntzetan nerbio-egituretan gerta daitezkeen kalteak saihesteko aukera ematen du. Neurokirurgiako eta Traumatologiako ebakuntzetan erabiltzen da gehienbat kontrolerako teknika hori.



Nafarroako Ospitelegunean monitorizazio neuro-fisiologikoaren laguntzaz egindako ebakuntza.

Ebakuntzetan teknika hori erabiltzea nerbio-bidieren bat arriskuan jartzen duen edozein ebakuntzatarako aurrerapenik handienetakoa da, sor daitezkeen edozein kalte berehala antzemateko eta atzera egiteko aukera ematen duelako (kalte neuronal akutuen denborak minutu gutxi batzuen bueltan dabilta), bai eta ebakuntzaren ondoren gabezia funtzionalak agertzea saihesteko ere. Orain dela hamar urte hasi zen Nafarroako Ospitelegunea teknika hori bere egunerokotasunean erabiltzen, eta arlo horretan esperientzia handiena duten ospitaleen artean dago, nazio zein Europa mailan.

Anestesiaturako pazientearen nerbio-sistema orratzezko edo gainazaleko elektrodo bidez elektrikoki estimulatzean datza, eta etengabe kontrolatzen dira estimulu horien ondorioz sortzen diren erantzunak; erantzun horiek erregistratu eta handitu egiten dira, hainbat gailuri esker. Pazienteak ezer nabaritzen ez duen arren, bulkada txikiak jasotzen ditu besoetan, zangoetan edo aurpegiko hainbat gunetan. Jarraipen horri esker, ebakuntzan zehar gerta daitezkeen edozein kalte neuronal gertatzeko arriskua antzeman eta beharrezko neurri zuzentzaileak martxan jar ditzake ebakuntzan parte hartzen ari den Neuro-fisiologiako lantaldeak.

Monitorizazio mota horretan, Neuro-fisiologiako kontsulta batean eskuarki aplikatzen diren teknika guztiak batera erabiltzen dira; hala nola miaketa eta estimulazio somato-sensoriala, motorea edo beste modalitate sensorial batzuen potentzial ebokatuena, besteak beste.

Funtsezko euskarria Onkologian

Monitorizazio neuro-fisiologikoa funtsezko euskarria da kalte neuronalak eragin ditzaketen ebakuntza onkologikoen esparruan, lesioa erabat edo zati batean kentzeko marjina handiagoa ematen baitu; frogatu da, tumore mota askoren kasuan, biziraupen-tasa handitzeko tresnarik eraginkorrena dela. Jarraipen neuro-fisiologikoak ematen duen informazioari esker, ebakuntzak seguruagoak eta zehatzagoak dira, eta tumorearen erauzketa-maila ahalik eta handiena kalte-maila ahalik eta txikienarekin lortzera bideratuta daude.



Ebakuntzaren une bat.

Jarraipen neuro-fisiologikoak ematen duen informazioari esker, ebakuntzak seguruagoak eta zehatzagoak dira, eta tumorearen erauzketa-maila ahalik eta handiena kalte-maila ahalik eta txikienarekin lortzera bideratuta daude.

Teknika horiek erabiltzen hasi aurretik, ezinezkoa zen pazientearen bilakaera ezagutzea hura esnatu arte; beraz, litekeena zen nerbio-zuntz osasuntsuetan lesioen bat gertatu izana eta, hori antzematen zenerako, beharbada berandu zen konpontzeko. Kasu batzuetan, kalteak saihesteko aukera bat zen ebakuntza amaitu baino lehen paziente esnatzea eta berriro loaraztea, ebakuntzarekin jarraitzeko. Adibidez, eskoliosiaren ondoriozko bizkarrezurraren desbideratzeen ebakuntzetan, barrekin zuzentzeko prozesuan zehar, ebakuntzan bertan, esnatu egiten zuten paziente zangoak mugitzeko gai ote zen ikusteko, horrek gaixoari zekarkion estresarekin. Monitorizazio neuro-fisiologikoarekin, hori dagoeneko ez da beharrezkoa, eta ebakuntza egiten dioten pertsona lo egoten da ebakuntza osoan zehar.

Traumatologia eta Neurokirurgia, monitorizazioa gehien erabiltzen duten espezialitateak

Aldaketak gertatzen diren unean bertan antzeman eta zuzen daitezkeenez, minimizatu egin da kalte berrien agerpena; horrek ikaragarri hobetu ditu ebakuntzen emaitzak eta kalitatea. Neurokirurgian eta Traumatologian erabiltzen da gehien jarraipenerako modalitate hori, nahiz eta aplikagarria den Aurpegi-masailtako Kirurgiako, Kirurgia Baskularreko, Tiroidearen Kirurgiako eta Otorrinolaringologiako ebakuntza jakin batzuetan ere.

Teknika hori aplikatzeko, beharrezkoa da kirurgiako zerbitzuen eta Nafarroako Ospitaleguneko ebakuntzetako monitarizazioko bi espezialisten arteko lankidetzeta estua; Javier Urriza eta Lorea Imirizaldu dira espezialista horiek. Urriza doktoreak berriaz jarduten du kirurgia-gelako jardueran, eta bere prestakuntza, fellow gisa, espezialitate horretan osatzeko aukera izan zuen New Yorkeko St. Luke's-Roosevelt ospitalean, ebakuntza barneko neuro-fisiologian aitzindarietako bat eta arlo horretan mundu mailan erreferente den Vedran Deletisen gidaritzapean. Teknika hori ebakuntzetako egunerokotasunean sartzearen aldeko apustua egingarria izan da Neuro-fisiologia Zerbitzuko buru Gonzalo Morales, Traumatologiako buru Angel Hidalgo, Idoya Zazpe Neuro-kirurgiako buruari eta haren aurretik bere karguan zegoen eta berriki erretiratu den Eduardo Portilloren laguntzari esker.

Monitorizazio neuro-fisiologikoa aplikatzen den ebakuntza gehienetan paziente anestesiatuta egoten den arren, Nafarroako Ospitalegunea hasita dago paziente esna dagoen kasuetan ere teknika hori erabiltzen, kasu oso zehatzetan, goialdeko nerbio-funtzioak (mintzaira edo memoria) kaltetzeko arriskua dutenetan. Besteak beste, azpimarratzekoa da [Nafarroako osasungintza publikoak egin zuela lehen aldiz paziente esna izanik garuneko tumore baten ebakuntza](#), 13 profesionaleko lantalde baten eskutik, iazko urrian. Monitarizazio neuro-fisiologikoari eta ebakuntza osoan zehar pazientearen bilakaera kontrolatzeko egindako beste frogak batzuei esker, pazientearen tumorearen erauzketa-maila handia lortu zen, haren bizi-funtzioak kaltetu gabe..